

BIZITEGI ERAIKINA (ANTZINAKO DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA)**GETARIA 11****C MAILA****Egilea eta data: Jose de Goicoa, 1889****Deskribapena**

Multzo osoan Arrasate eta Getaria kaleen arteko kantoiko orube hau eraiki zen aurrena, Goicoaren 1889ko proiektuaren arabera, Caja de Ahorros y Monte de Piedad erakundeak erabiltzeko. Urte gutxi buruan, Arrasate kaleko 12 zenbakiaren orubea eskuratu ondoren, jarraibide arkitektoniko berberak betez zabaldu zuten eraikina. Jatorriz, eraikinak profil hau du: behe oina, hiru goi oin eta zati batean estalkipean dagoen oin bat. 1931n, Cortazarrek bi jasodura eraiki zituen: laugarren oina (jatorrizko estalkipekoaren orde, fatxada planoan), eta atzera emandako 5. oina. 1947an, L. J. Arizmendi arkitektoak (alboko Getaria 9 eta 7ko orubeak ere ex novo eta modu mimetikoan eraiki zituen) atzera emandako beste jasodura bat (6.a) proiektatu zuen 11 zenbakian, bai eta izkina errematatzen duen dorre kupuladuna ere. Gainera, Goicoaren jatorrizko eraikina eraberritu zuen, goiko oinak etxebizitza bihurtzeko, behe oina aurrezki kutxarako libre utzita eta fatxadak aldatu gabe. Goicoaren lehen eraikinaren inguruan behin eta berriz egindako handitze eta eraberritze lanen ondorioz, etxabearen erdia inguru okupatzen duen irudi bateratuko multzo bat eratu da. Hain zuzen ere, duen tamainagatik eta pintoreskotasunagatik, eraikuntza multzo honek nolabaiteko garrantzia hartu du hirian. Duen lengoia bereziaren ondorioz, hirian erabilera zibileko eraikin neogotiko gutxienetakoa da. Dauden ezaugarri estilistikoaren aniztasunaren barruan (pinakuluak, trazeriak, eskulturen horma hobiak, etab.), behe oineko arkuteriako forma garbiagoak nabarmentzen dira.

Babes erregimena**1.- Babes erregimen orokorra:**

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: arotzeria.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlandu elementuak eta elementu moldekatuak; izkinako dorrea.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Getaria 7 eta 9rekin, eta Arrasate 12rekin batera, esku hartze unitatean sartzearekin lotutakoak.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.